

Maria Gurrutxaga Gartxotenea

*Getaria,
Gipuzkoa (1929)*

Aurkibidea

Biografia



Oikian jaio zen 1929an.
Getariako Eitzaga baserriko Jose
Ezenarrorekin ezkondu, eta
Getarian bizi da harrezkero.
Emakumeek baserrietan egiten
zituzten lanak ondo azaltzen
ditu.

Zintak

GET-008

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2006-10-17
- **Iraupena**: 51 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Meagako erromeria

- **Erref**: GET-008/002
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Meagara joaten ziren erromeriara; inguruetako erromeria ezagunena zen. Barrentzo Zarauzko soinujolea izaten zen jotzen. Lehen erromeria goizago izaten zen. Erromeriara aurretik bezperetara joan behar izaten ziren. Hijas de Mar&iacut;a kongregaziokoa izanda pieza bat dantza egitearren Mariari gertatutakoa. Joxe bizikletan joaten zen Meagako erromeriara.</p>

2. Eitzako baserri batzuk Zarautzera jotzen dute eta besteek Getariara

- **Erref**: GET-008/004
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Eitza auzoan bertan aldea dago baserrien artean. Adibidez, Gaztaka baserriak Zarautz aldera jotzen du eta eurenak Getariara. Beraiek Zarautzerako joera gutxi izan dute.

3. Tratuarekin Zarautzera plazara

- **Erref**: GET-008/005
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Esnea saltzera Zarautzera azokara joaten ziren. Getarian ere saltzen zuten

plazan, baina Getarian gutxi saltzen zen. Gainontzean, Azpeitira eta Eibarrera ere joaten ziren.

4. Gariaren garrantzia; honen inguruko lanak

- **Erref:** GET-008/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Artoa, garia eta babarruna ziren garrantzitsuenak baserrian. Garia txartzen hasi zen eta orduan utzi zioten ereiteari. Gariaren inguruko lanak. Kale ingurukoek herriko frontoian jotzen zuten garia.

Transkripzioa

- (Maria Gurrutxaga, emaztea).: Ordun ez zan nahi izaten, ordia! Gure ama zana, gaixua, Jesus! Bere gariya ta artua iñ ezkeo, babarruna, konforme.
- J.: Ordun gariya ta artua zan. [Hua iñ ezkeo] ona, e!.
- M.: Bueno! Ta nere koiñatak, koiñatak esaten ziyon: “Ama, baatza pixkat bada’re...”, “Ixilik eon ai, neska! Ixilik eon ai! Nola baatza ingo den, ba, zean?” Hark bere gariya ta bere artua izan ezkeo, Jesus!
- J.: Ordun dana [behar zan ta], zea [guziya], hartua ta baba.
- Gehiena hori?
- J.: Dana hori, dana.
- M.: Geo in zan gariya’re txartzen hasi. Olua ta...
- J.: Geo txartzen hasi zan, bai.
- M.: Ta geo beherago gendun zea, terrenuan, han garbi-garbi-garbiya, zillarra bezelakoxia. Ta “Ene! Hau ez deu uzteik! Hau ez deu uzteik!”. Han zea in zan ditxosozko olua, “Utzi beharko deu, Maria, ba!”. Haor, ba. Ordun, ene!, gurasoi zea ez ematetik, disgustua ematetik, ya etsi zunian, beak “ez, utzi in beharko da”. Eske ordun zan garia han, garbi-garbiya behian, [...], bueno! Ordun txoatzen.
- Eta hemen ingurun garia asko iten zan?
- J.: Ordun gariya iten zan dezente, bai, bai, bai, ondo, ondo.
- M.: Bai, orduntxe ze zea iten zan: gariya...
- J.: Guk geuk’e urtiak beti hortxe...
- M.: ...gariya jo...
- J.: Eun bat, eun bat [zea, anea, anea] esaten diyou guk, geuk’e beti urtian, e, eun bat izaten giñun.
- M.: Garia jotzen. [...] ez zan atea’re itten. Entre, ekarri in zunak ta zea in, hua jo. Ez...
- J.: Ez, ta uain bezela ez da zeaik, eta orduan gastua [...], hoixe.
- M.: Bueno, bueno, bueno. Gariya iñ, ta o zea in ta, garittan gehio gastatzen zan ogiya ekartzen. Gariya in [...] ta, zea itten zan, errotan ta jo banakin ta zea, ordungo... Jesus! Gariya ekarri ta bereik ez!
- Lan asko ta...
- M.: Lan asko ta [...] ez.
- J.: Bai. Lan asko ta, lan asko ta zea gutxi.
- M.: Jesus!
- Esan diate gariya frontoian joten zala... e... Getaikeo...
- J.: Getaikeo...e... kaleko, kalekuk bai, kalekuak danak frontoira.
- Kale inguruko baserritakuak eta frontoira joten ziñaten?

- J.: Bai, frontoira.
- Baiña baserritakuak ez?
- J.: Basarritakuak aleik ez [...].
- Zuek hemen bertan?
- J.: Hemen bertakuak, basarritarrak basarrin. Haiek kalekuk zian haiek, kalian bizi zianak. Hola badaude basarri txiki batzuk?
- Bai. Kale inguruko basarriyak.
- J.: Kale ingurukuak, bai. Hoiek'e danak kalea.

5. Eitza auzoa; bideak

- **Erref:** GET-008/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lehen pinu asko zen Eitza inguruetan. Biderik ez zegoen. Eitza auzotik Getariara nondik zegoen bidea. Garai batean farolarekin edo karburoarekin ibiltzen ziren bideetan argi egiteko.

6. Arropak albergan garbitzen ziren

- **Erref:** GET-008/009
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa guztiak eskuz garbitzen ziren albergako harrian xaboiarekin. Ez zegoen gaur beste arropa eta ondo zaintzen ziren. Mariak ez du lixibarik egin izan, baina gogoratzen du bere jaiotetxean bazela lixiba egiteko tina eta bere aurrekoek egiten zutela.

7. Aizarnazabalera errotara

- **Erref:** GET-008/010
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Auzo asko daude inguruan. Goizean, artoa aletu eta bi zakukadarekin Aizarnazabalera joaten ziren errotara. Bidezidorretik oinez joaten ziren. Getarian ere bazegoen errotara, baina txikia zen eta Aizarnazabalera joaten hasi ziren. Errotara joatea debekatuta zegoen garaian, goizaldean joaten ziren.

8. Txerria isilean hil behar

- **Erref:** GET-008/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:22:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean, txerria isilean hil behar izaten zen. Txerria hil, gazitu eta ganbaran jartzen zen lehortzen.</p>

9. Gerra garaiko kontuak

- **Erref:** GET-008/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:22:30. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaia gogorra izan zen. Soldaduak egun batez inguruan izan zituzten. Estraperloko kontuak.

10. Arbia ganaduentzat

- **Erref:** GET-008/013
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Inguruko auzoetakoek izaten zuten harremana, baina jaietara gutxi ibiltzen ziren lan asko izaten zelako baserrian. Arbia egiten zen lehenago ganaduei jaten emateko. Arbiaren inguruko lanak. Arto-orriak ere ganaduari ematen zitzaizkion.

Transkripzioa

- Eta ordun, Aizarnazabal esan dezue ta, bestela, hemen inguruko auzuen artian eta, hartu-eman haundiya izaten zan?
- M.: Bai, bai. Auzuan bai.
- Ba, Aiako... ez dakit ba... Urdaneta, Elkano...
- M.: Hori beste aldea da, baiño.
- ... Mia...
- M.: Bai, bai. Alkartasuna.
- Bertakoekin eta?
- M.: Bai, bai. Bertako zeakin ta bai.

- J.: Bertako zeakin.

- Jaietan'e bai? Urdaneta ta Urteta ta...

- M.: Ordun ibili iten al zan, ba? Mezeta jun behar zendun. Ta ordun ez zan ibili're itten. Zeure zean hortan, ta listo. Geo arbiya zeon ordun ta, arbi hostrua in ta, ...

- Hori noiz?

- M.: Hori neguan... ze garaittan izaten zan hua?

- J.: Nobienbria.

- M.: E?

- J.: "Noviembre", "noviembre".

- M.: "Noviembre" izango zan gaiñea. Hostrua itten zan bittartian... bueno! Arbi haundiya bazan, ta arbi hori haundiya in bazan, ordun earki jata zea itteko. Geo majina jarri zan ta, majina jarri zanian hua txikitzeke difeentzi haundiya. Eske dana etorri da... Ai! Ta hori apuntatzen ai al zea, gaiñea?

- Danetik pixkat.

- M.: Ta ni berriz, txoliñan moun [...].

- Ez, oso ondo.

- M.: Pentsatzen jarrita're...

- Eta arbiya ordun inportantia izaten zan?

- J.: Ganauentzako.

- M.: Ganauentzat.

- J.: Ganauentzako.

- M.: Oain bezelako pentsu, oain bezelako janak ez. Oaingo zeak... Jesus, Maria!

- Eta noiz batzen da? Noiz biltzen da arbiya?

- J.: Hori hortxe, nobienbrian o hola izaten zan.

- M.: Bai. Ta geo bestia, artua, artazorrua in ta zea're bai, artua txikittu, zuittu, ta haen hostruak zea inda, dana holaxen, dana holaxen, ganauai. Bueno, bueno, bueno! Oain bezela... Oain bezelako pentsu zeak eta... Jesus! Ziharo kanbiauta dao!

- Eta arbiya nobienbren hartu...

- J.: Bai.

- M.: Bai.

- ...eta gorde iten zan? Neguan gorde, o?

- J.: Ez, hua eman...

- M.: Ez, hor huaxe ibiltzen zan.

- J.: Ganauentzako hua izaten zan, ta bata jasotzen zanian, bestia ta hola.

- Bildu ta eman, bildu ta eman.

- M.: Bai, bai, jenealian. Zapa... jaian ez itteattik, mezeta jun gabe ez zeon gelditzeik ordun jaietan, ta bezperan ekarri pilla bat, han [tolestun] jarri ta. Geo jarri zanian majina txikitzeke, [dongiñan] ordun, hua zean, txikittu itaikiñ eo, diferentzi haundiya zan. Geo motorra jarri zanian txikitzeke, difeentzi haundiya. Ene! Gauza kanbiatzen jun zan bezela, izugarrizko difeentziya.

11. Gariaren inguruko lanak

- **Erref:** GET-008/014
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:26:35. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Ganaduentzat jana arbia, belar-ondoa eta lastatxikia izaten zen. Lastatxikia: gariaren lastoa txikituta. Hasieran eskuz txikitzen zen, makina etorri arte. Garia ere igitaiarekin ebatzen zen lehenago. Gariaren inguruko lanak. Etxekoak ibiltzen ziren gariaren inguruko lanetan. Gari-jotzea eskuz egiten zen lehen, harriaren gainean joz, eta, gerora, makinarekin hasi ziren.</p>
<p>

Transkripzioa

- Eta ganauantzat ze izaten zan, jana ze izaten zan? Arbiya esan dezue, ta... bestela?
- M.: Ta bestia belar-ondua...
- J.: Belar-ondua bestia.
- M.: Ta lasta txikiya ta hoiek.
- J.: Lasta txikiya ta hoiek, hoiek die.
- Lasta txikiya zer da?
- M.: Hoi lastua...
- J.: Lastua txikitutakua, lastua, txikiuta lastua.
- M.: Bai. Gariyen...
- Gariyana.
- M.: Bai, ba.
- J.: Gariyana.
- Eta txikitu nola iten zan?
- M.: Hori txikittu? Jotzen zanian geo eoten zan bat hola txikitzeko're, ta holaxe. Hori estreñeko urtetan. Geo oso pixkanaka zeoze adelantatzen hasi zanian, orduntxe zea itten zan, gariya're itaiakiñ ebaki.
- Eskuz?
- M.: Bueno!
- J.: [...]
- M.: Bai, ta geo beste majina bat jarri zan, ze majina, lan gehio bai, jata ta-ra-ra-ra juten zan ta dana zabalik laatzen zun ta. Nik esaten nun hamaika bider, "hau baiño hobeto deu gero itaiakin", baiño geo gui iruitzen adelanto gehixio zala, ta geo haikiñ jarri giñan, [zea itten zala].
- Majinakin?
- M.: Bai, majinaz. itaia o segakin baiño okerro geatzen zan, majina zea ba, klase bat, ta holaxen, adelante. [...] adelanto.
- J.: Negua're ona zan ordun, e?
- M.: Bai, izuarri earra. Dana ona, ebaten zanian.
- Nola izaten zan ebatia eta?
- M.: E?
- Gariya ebatia eta nola, nola izaten zan?
- M.: Ebaki, ta gero itten zan lotu hua berriz.
- Ta, kontiazu mesedez, dena, nola hasten zan, goizian goiz edo, hasiko zan?
- J.: Goizian, goizian hasi behar ba, [...] bestela ez zan zeatzen.
- Euzkiya irten aurretik?
- M.: Bueno, bueno!
- J.: Bestela lehenaotik hasi behar!
- M.: Bai hoixe!
- Eta, ordun, baserriko jende guztia auzolanian, o nola izaten zan?
- M.: Ez, auzolanian ez, familiko zea jenealian.
- J.: Familiko zea.
- M.: Jotzekuan ta bai, jotzekuan bai auzuak eta ordun.
- Baiña ebateko ez.

- J.: Ebateko ez.

- M.: Ebateko zeaik ez. Bai, oso gutxi baldin baziñan o zea in baziñun, baiño... etxeako [...] zintuela, beakin.

- Etxekua nahikua izaten zan.

- J.: Etxekuak, etxeakuak.

- M.: Bai, bai, jenealian.

- Eta ordun etxeko guztiak...

- M.: Ebaketa lotu behar zan, lotu ta geo meta in.

- Kontaiazue hori, mesedez...

- M.: Ta gero meta txikiya [...]!

- ...nola zan, nola zan dana, ea, hasi ebaten eta...

- M.: Ebaten, bai.

- Nola izaten zan?

- M.: Geo lotzen haiek beak. Haiek lotu...

- Lotu nola?

- M.: Beakiñ, bere zeakiñ. Hola ez Joxe!

- J.: Bere zeakin.

- Lasto...

- J.: Lastuai beai kendu.

- M.: Bere gariyan zeakiñ. Batzuk zea...

- Eta horrela, e, zerbaiteatikan?

- M.: Ta holaxe in ta geo sartu. Buelta eman ta geo bere tartian sartu zea itteko. Ta geo in behar izaten zian metatxuak. Estreiña meta txikiyak, ta geo berriz, pixka bat ya zea inda zeonian, sekauta ta zea inda zeonian, ordun meta handitxoauak. Lana itten zan "como un burro".

- J.: [...] lana...

- M.: Geo, berriz, jotzeako etortzen zanian berriro, Jesus, Maria ta Jose! Hori majinakin zanian, ta eskuz jotzen zanen harriyan berriz, haiek danak zabaltzen, "en cruces". Beste [...] hua!

- J.: [...] harri bat jarri, hari jata danga-danga!

- M.: Bai.

- Harriya jarri eta danga jo?

- M.: Bai, hari jo. Hari atea behar zitzaion.

- Gariya, burua, burua harriyan kontra jo.

- M.: Bai, bai, bai. Ta geo jarri zan adelanto gehixio ta ordun majina jarri zian ta. Majina jarri zianian bai!

- J.: Hua're probau gendun ba!

- M.: E?

- J.: Izugarri probau gendula harriya!

- M.: Dinbi-danba! Dinbi-danba!

- Ezagutu zenduen, orduan?

- M.: Bueno!

- J.: Ezautu gendun, bai.

- M.: Ta geo majina jarri zanen salto haundiya.

- J.: Majina jarri zanian [...].

- Eta izenik bazeukan harriyan kontra jotiak? Edo harriyak? Izen espezialik?

- M.: Ez. Aproposko harriyak jartzen zian zean...

- Izen espezialik edo bazeukan?

- J.: Ez, ez.

- M.: Izena? Ez, ez.

- Gariya joteko harriya, o... ez?

- M.: Bai, ba. [...] haundiya behar zun gariya hor jotzeko ta pixkat zea itteko're.

- Beste toki batzutan entzunda daukat, e, txanketan jotia zala, o... horrela esaten diyoela.

- J.: Txaketan hoixe da ba!

- Hori da txanketan?
- J.: Bai., hoixe.
- Horrela esaten zaio?
- M.: Txanketa bezela.
- J.: Hori da txanketa.
- M.: Pentsatzen jarrita, Jesus!

12. Txakolina eta sagardoa egiten zituzten

- **Erref:** GET-008/015
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:30:50. **Bukatu:** 00:33:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Txakolina beti egin izan dute baserrian, baina etxerako bakarrik. Aurrekoek ere egiten zuten. Sagardoa egiten zuten txakolina baino gehiago eta hura saldu ere egiten zuten Zarautzera edo Getariara. Ezagunei banatzen zieten gehienbat.</p>

13. Txakolina nola egiten zen

- **Erref:** GET-008/016
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:33:10. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Etxerako beti egin izan dute txakolina. Dolarea zuten etxean eta bertan egiten zuten dena. Txakolina nola egiten zen. Sobratzen zen patsa kanpoan botatzen zuten.

14. Arraina botatzen zen soroan lurra indartzeko

- **Erref:** GET-008/017
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:38:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Saltzeko balio ez zuen antxoa txikia baserrietara eramaten zen soroan botatzeko. Lurra indartu egiten zuen, baina izugarrizko usaina botatzen zuen. Baserritarrek joaten ziren gurdietan tina handiak hartuta antxoen bila. Gurdia idiekin edo behiekin erabiltzen zen garraioetarako. Lurra goldatzeko lau behi erabiltzen ziren goldeari tiraka; idiekin bi nahikoa izaten ziren.

15. Argia beti izan dute, baina ura errekatik

- **Erref:** GET-008/018
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:40:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Elektrizitatea ez dute beti ezagutu, baina nahiko argi ona izaten zuten. Etxe ondoan zuten transformadore modukoa eta beraiek ematen zuten argia. Ur-korronterik, ordea, ez zuten izaten eta errekarra joan behar izaten ziren. Maria ontzi bat buruan eta bestea eskuan zuela joaten omen zen uretara. Emakumeen lana izaten zen ura ekartzea.

16. Emakumeek lan ugari baserrian

- **Erref:** GET-008/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baserrietan emakumeek etxean eta etxetik kanpora lan ugari egin behar izaten zuten. Gizonezkoek ere lan handia izaten zuten, gainera, "asto-lana", lan gogorra. Baina emakumeek ere lan ugari, batez ere, garbiketa kontuetan. Astean behin garbiketa orokorra egiten zuten etxean.

Transkripzioa

- Orduan, zein izaten zan lan gehien iten zuna baserriyan? Emakumia?
- J.: Emakumia.
- M.: Emakumia. Bi semiak'e bai.
- J.: Orduan emakumia, orduan emakumia.
- M.: Bai, baiño bi semiak'e bai ordun. Dana lana asto lana zan, dana atxurra kin ta zeakin, ta.
- J.: [...] beti gogorra uak iten zuen, emakumiak beti zeauak.
- M.: Bai, emakumiak, esan dezuna egiya. Entre erropa garbitzen, entre zoze... Oain bezelako itxetza baiño haiei [...] pasaa ta, pasaa onena astin behin linpieza jeneral [...] izaten zenun...
- Etxe guztiya.
- M.: ...ordun jaian, ta bestia berriz al zan bezela astian in, ta... erten in behar izaten zendun ta. Amona ta [...] zozer, Jesus! Itxea gatozela ikusten gendunian tximinitik zea, kia, aaaaaa! Hau da difeentziya hua hil zanian guk billatu genduana. Itxea etorri ta zeu hasi behar hasiera-hasieratik.
- Dana iten.
- M.: Bueno, bueno. Eske, esanda esanda're, ta oain horrenbeste, oain pixkat gehio nahi ta ezertako gauza ez dao, tristia da berriz. Katxis la mar!
- Eta orduan esan dezu, emakumiak lan gehio iten zula... Gizonak baino gehio?
- M.: Lan gehio...
- J.: Gehio, goorro...

- M.: [...] Hauek entre segakin ta zea, jun [kanpo hoita] ta...
- J.: Guk, ez dakit, gehixio, baiña, ez, emakumiak lana gehixio izango zun, e!
- M.: Emakumiak, bai.
- Emakumeak etxia eta kanpuan, ez?
- M.: Bai.
- J.: Bai.
- M.: Hoixe! Bueno! Bueno!
- Gizonak kanpuan, baiña...
- M.: Bai.
- J.: Bai.
- M.: Ta behiai [...] dana eskuz in behar izaten zenun. Ta zean, uraan, igual "cincuenta céntimos más" izugarriya iruitzen, [...] ta hartu hamabost litroko marmita, tzi!, astua bezela. Dana [...], ordun sasoia! Sasoia dakazula, eozar gauza itten da. Hori galtzen danielan dana galduta.

17. Inguruko jaiak: San Isidro eta Santa Barbara

- **Erref:** GET-008/020
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:43:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Inguruko jaiak: San Isidro Meagan eta Santa Barbara. Elkano, Askizu eta San Prudentzio pixka bat aparte gelditzen zitzaizkien eta ez zuten harako ohiturarik. Herriko jaietara ere gutxi joaten ziren.

18. Harakina etortzen zen txerria hiltzera

- **Erref:** GET-008/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:48:40. **Bukatu:** 00:50:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Etxean beti izaten zuten txerria. Txikia ekarri eta etxean hazten zuten eta udazken-negu aldera hil. Goserik ez zuten pasatzen hari eskerrak. Getariako harakina etortzen zen txerria hiltzera.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com